

ALKATEAK GERTUTIK: IÑAKI ZABALA

·Zuek bai jakin!: Iban Marcos ·Izerdi patsetan: Beasaingo Ehunmilak probako ibilbidea osatu duten lehenak ·Boteprontoan: Idoia Barbarin

Herri Aldizkaria

Otamotz

2010eko

apirila

156. alea



Herri Aldizkaria

Otamotz.com


Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda, inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN
BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!

ATE IREKIAK

etorri aurretik izena eman!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE

MAIATZAK 6 osteguna 17:30

MAIATZAK 20 osteguna 17:30 *2. zikloa*

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI

MAIATZAK 13 osteguna 18:00

IRUN

MAIATZAK 6 osteguna 18:00 *2. zikloa*

MAIATZAK 20 osteguna 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA

MAIATZAK 8 larunbata 11:00

areto nagusian

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldúa **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Oihana - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Alkateak gertutik: Iñaki Zabala
- 11 Erreportajea**
Zintzo-Mintzo: arre edo so
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Legazpiko jaietara joateko ohiturarik ba al duzu?
Bestelakoan, Legazpira joaten al zara?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 16 Klik eta klik**
Carlos Mediavilla
- 18 Zuek bai jakin!**
Iban Marcos
- 23 Argazki zaharra**
- 24 Gure gomendioa**
- 25 Izerdi patsetan**
Beasaingo Ehunmilak probako ibilbidea osatu duten lehenak
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Idoia Barbarin



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

Alkateak gertutik: Iñaki Zabala mendizalea

Denok dakigu ondo nortzuk diren gure herrietako alkateak. Askotan ikusten ditugu kalean eta komunikabideetan, baina bizilagun gehienek ez dituzte gertutik ezagutzen eta ezer gutxi dakite euri buruz. Iñaki Zabalarekin eta Mikel Serranorekin hitz egin dugu euren bizitzari, familiari eta zaletasunei buruz. Ale honetan Zabalarari egindako elkarrizketa irakurri ahal duzue eta maiatzean Serranorena argitaratuko da.



Noiz eta non jaio zinen? Zer diozu zure familiaz?

Amezketan jaio nintzen duela 63 urte. Gure familiaren bizitza traumatikoa izan da, nik bost urte nituenean aita istripuz hil baitzen. Oso eroso bizitzetik, ezer ez izatera pasatu ginen. Garai hartan ez zegoen Gizarte Segurantzarik, ez ezer. Aita elektrizitate sarearen mantenuaren arduraduna zen eta elektrokutatuta hil zen, laguntzaile baten hanka-sartze bategatik. 35 urte zituen eta bost seme-alaba: hiru mutil eta bi neska. Saltseroa zen, saxofoia jotzen zuen eta taldetxo bat zuten Amezketan.

Amaren bizitza gogorra izan zen.

Ezer gabe gelditu zen. Anaia-arreben arteko erlazioa ez da familia normal batekoa bezalakoa izan. Sakabanatu behar izan genuen. Nire anaia zaharrenak, Pellok, 9 urte zituen eta handik urtebetera Arantzazura joan zen. Amak elizaren

babes ekonomikoa bilatu zuen eta ni 6 urterekin akolito nintzen: egunero mezatarra joaten nintzen apaizek pezeta bat ematen zutelako.

Zer ikasketa egin zenituen?

Paper-fabrikak semeei ikasketak ordaintzen zizkien seminarioetan. Eskerrak horri! Hori izan zen nire aitaren heriotzak nire bizitzan izan zuen eragin on bakarra. Izan ere, nire belaunaldiko amezketar gutxi ditugu ikasketak. Seminariora joan ginenok eta paper-fabrikako nagusiaren semeak bakarrik. Ikasketak izatea mesedegarria izan da nire bizitzan.

Nora joan zinen ikastera?

Arantzazura. 10 urterekin atera nintzen etxetik eta ez nintzen itzuli 21 bete nituen arte. 1968an seminario guztiak hustu ziren. Urte hartan ez zen Parisko iraultza bakarrik izan, hemen ere sekulakoa izan zen. Arantzazun 90 bat ginen eta 20 bat gelditu ziren. Seminario klasikoaren bukaera eta modernoaren hasiera izan zen. Jesukristoren iraultza izan zen. Hura irakiten zegoen eltzeta zen: barruan euskal kultura zegoen eta kontserbadoreek ez zuten tapa ireki nahi. Azkenean, eltzeta lehertu egin zen eta euren onerako izan zen.

Garai hartako Arantzazu ez zen, beraz, egun ezagutzen duguna.

10 urterekin joan nintzen bertara eta erdaraz "si" eta "no" hitzak besterik ez nituen ezagutzen. Urtebete Arantzazun igaro ondoren, etxera itzuli eta ez nuen amonari euskaraz egiten asmatzen. Begira zertaz hitz egiten ari garen!

Nolakoa izan zen Arantzazuko irteera?

Han barruan norbanakoak ez zuen bere ekimenak garatzeko tarterik. "A golpe de campana" bizi ginen: 6.30ean jaiki,

7.00etan meza, 7.30ean gosaria... Dena erabat neurtuta zegoen eta ez zegoen erabakiak hartzeko aukerarik. Logelan ikasteko genituen orduak ziren guretzako genituen bakarrak. Horrek ito egiten du eta iraultza eragin zuen. 21 urte genituen, e!

Zer harreman zenuten euskal gizartearekin?

Ordurako bagenuen gizartearekin nola baiteko kontaktua. Gizartean ere sekulako iraultza ematen ari zen. 68an Etxebarrieta

"Nik bost urte

nituenean aita istripuz

hil zen: oso eroso

bizitzetik ezer ez

izatera pasatu ginen"

hil zuten, euskara munduan mugimendua zegoen... Gezurra dirudi, baina 18 urterekin deskubritu nituen Euskal Herria, Euskadi... kontzeptuak. Erabat tapatuta zeuden eta apaiztegietan gehiago oraindik. Mundu berri bat ireki zitzaidan.

Pello Zabala anaia duzu. Arantzazun berarekin harremanik ba al zenuen?

Oso gutxi. Ni baino lau urte zaharragoa da eta ni Arantzazun nengoenean bera Foruan zegoen, ni Foruan nengoenean bera Erriberrin... Gure harremana gutun bidezkoa zen. Nire arrebei dagokienez, bat 11 urterekin neskame joan zen. Gaur egun hori irudiezina da. Haurtzaroko amezketatik ditudan oroitzapen bakarrak eskola, eliza eta bihurrikeria batzuk dira.

Arantzazu mundu berri bat izan zen, oparotasun mundua. Izan ere, baloiak, pianoak... genituen.

Musika ikasi al zenuen?

10 urterekin hasi nintzen. Ikasketetan erraz genbiltzanoi solfeoa eta pianoa ikastera bidaltzen gintuzten. Nire anaia pianoa jotzen oso ona da, baina nik pilota nahiago nuen eta pilota eta pianoa bateraezinak dira. Oinarrizko musika ikasketak ditut.

Anaiak zuk seminarioa uztea ulertu al zuen?

Ez. Egunean bertan esan nion banindoa-la. Ez nion erreakzionatzeko aukerarik eman, baina ordurako nire ibilbidearen berri bazuen. 1968an etxera joan nintzen, Amezketara, zer egingo nuen jakin gabe. Lehen gauza soldadutza egitea izan zen, Gasteizen, baina lehenago hamar egun eman nituen polizia komisarian. 1968an salbuespen-egoera dekretatu zuten, Meliton Manzanask hil zutenean. Gau hartan bertan hemengo zenbait jende desterratu zuten, tartean Oñatibia medikua. Fitxatuta zeuden abertzaleak (abokatuak, medikuak...) bidali egin zituzten. Oñatibia hartu zuten herrikoek sekulako zortea izan zuten, osasun arloan asko aurreratu baitzuten. Egoera horretan atera nintzen seminariotik. Oñatibia-eta zortea izan zuten, beste batzuk kartzelara eramanez baitzituzten. Herrietan laguntza sareak antolatu ziren, kartzelan edo desterratuta zeudenen familientzat dirua biltzeko. Laguntza sarean aritu nintzen eta bigarren sarekadana kartzelara eramanez ninduten.

Zer egin zenuen soldadutza bukatu zenuenean?

Ikasi egin nahi nuen, baina dirua behar



nuen eta lana eta Unibertsitatea uztartzea ez zen batere erraza. Gainera, hemen ez zegoen Unibertsitaterik: Valladolidera edo Salamancara joan beharra zegoen letrak egitera. Amezketan arlo soziokulturalean aritu nintzen eta 1971n Orbegozora lan egitera etorri nintzen. Garai hartan oraindik 3.000 langile baino gehiago zituen. Enpresan sekulako errepresioa zegoen. Pertsonal-burua guardia zibila izandakoa zen, atera kontuak... Zapalkuntza erabatekoa zen. Orbegozon informatika mundua deskubritu nuen eta nire ibilbide profesionala arlo horretan egin nuen.

Amezketatik Zumarragara alde handia nabaritutako zenuen.


Mundu erabat euskaldun batetik erabat erdaldun batera pasatu nintzen. Garai hartan kalean ez zen euskaraz hitzik ere egiten. Gau eskola zegoen, baina kutsu erlijiosoak zuten eta hemengo gaztedia ez zuten asetzen. Berehala Jakatarrekin



harremana izaten hasi nintzen. Gau eskolak euskaldunoi elkar ezagutzeko eta euskal kultura lantzeko aukera eman zigun.

Zenbat urte egon zinen Orbegozon lanean?

Bost: bidali ninduten arte. 1975ean fusilamenduak izan ziren eta horien aurkako greba orokor oso garrantzitsua egon zen. Orbegozo zen grebetan parte hartzen ez zuten bakarra. 1976an, fusilamenduen urteurrenean, Euskal Herria guztia gelditu egin zen. Lehenengo aldiz, Orbegozoko tailerrak ere bai. Bulegootakook bakarrik jarraitu genuen lanean. Eguerdian jendea mobilizatzen saiatu nintzen, baina ez nuen lortu. Lortzear nintzenean, Orbegozotar bat sartu zen eta beldurtu egin nintzen. Arratsaldean ordu erdi eman nuen bulegoan. Altxatu eta jendea lotsa sentitzen nuela esan nion. Euskal Herriarri gu bakarrik ginela ustelak eta banindoala. Etortzen ez baziren, ez nintzela euren



lagun kontsideratuko. Horren ondoren lanpostuz aldatu ninduten. Arrazoia eta zeregin berria idatziz emateko eskatu nien, baina ez zidaten kasurik egin. Egoera xelebrea zen, ez bainuen zereginik. Etxera joateko eta biharamunean itzultzeko esan zidaten. Gerra-kontseilua egin zidaten eta Orbegozotik bidali ninduten: nire bizitzan egin didaten mesederik handiena. Joateagatik etxebizitza bat erosteko adina diru eman zidaten eta Orbegozorekin kalte-ordaina negoziatzen ari nintzen bitartean lana lortu nuen: Danonan informatika aditua behar zuten.

Zer moduz Danonan?

10 bat urte eman nituen bertan eta ondoren Arrasaten beste 20 inguru.

Beti informatika arloan?

Hasieran bakarrik. Danonan nengoela Enpresaritza masterra egin nuen EUTGn. Goizez lan egiten nuen eta arratsaldea ikasten ematen nuen. Gogorra izan zen,



Arantzazuko dantza taldearekin, airean.

ordurako 32 urte baintuen. Fisikoki kiskalita bukatu nuen, baina kudeaketa munduan sartzeko aukera eskaini zidan. Danonan arazoak hasi zirenean, Caja

“Iñigo Jakak Santi

*Brouard aurkeztu zidan:
ordu erdi bakarrik egon
nintzen berarekin, baina
erabat liluratu ninduen”*

Laboralek hartu zuen. Enpresa zuzentzera jende eskasa zetorrela ikusi nuen eta alde egiteko asmoa azaldu nuen. Arrasatera joan nintzen eta orduan murgildu nintzen kooperatiba munduan.

Nolatan ezagutu zenuen emaztea?

Garai hartan lanetik irtendakoan poteatzeko ohitura zegoen. Eliz-Kalen hasi eta

Urretxun bukatzen genuen. Taberna batean ikusi nuen eta...

Noiz ezkondu zineten?

1976an. Eztei-bidaian Paris eta Bruselara joan ginen, lagun errefuxiatuak bisitatzera. Burselan Iñigo Jaka zumarragarraren etxean izan ginen. Laguna nuen, uda batean nire etxean izan baitzen euskara praktikatzeko. 1976ko maiatzaren 1ean Euskal Eguna ospatu zen Amsterdamen eta bertan Jakak Santi Brouard aurkeztu zidan. Ordu erdi bakarrik egon nintzen berarekin, baina erabat liluratu ninduen. Bere eraginez ordutik ildo politiko hau jarraitu dut.

...

Hori izan da nire ibilbidea. Aita hil, Arantzazura joan, Euskal Herriarekin identifikatu eta 1968an kalera... Orbegozon emandako pausoak badu bere arrazoia: fusilatuetako bat, Otaegi, emaztearen familiakoa zen. Bere amak seme bakarra zuen, ezkongabetan eduki zuen eta hiru ahizpa zituen. Familian ez



Emaztearekin, Gernikan.

zegoen gizonik eta ni izan nintzen abokatuekin-eta gestioak egin zituen. Ama, hamabostean behin, Burgosko kartzelara eramaten nuen semea bisitatzera. Fusilatu zutenean, bere ama nik ekarri nuen Burgosetik. Bizipen gogorak izan ziren eta, hala, ezin izan nuen urteurrenean greba ez egitea jasan.

Gaia aldatuz, gazte erretiratu zinen.

Oso argi nuen 60 urterekin erretiratuko nintzela. Lana bizitzeko egin behar da eta gero norberak bere zaletasunak landu behar ditu. 50 urte egin nituenean seme-alabei nire kontura bizitzeko 10 urte zituztela esan nien, 60 urterekin geldituko zitzaidan pentsioa amarentzat eta biontzat beharko nuela. 25 urte bete arte behar zuten guztia izango zutela, baina Unibertsitate ikasketak egin behar zituztela esan nien. Egia esan, ez zitzaidan asko kostatu seme-alabek hori barneratzea. Halako batean Oierrek halako etxe handi

batekin zer egin behar genuen galdetu zidan. Nik ez nuela etxetik bidaliko, baizik eta ez zuela ezer jasoko eta etxean dirua jarri beharko zuela erantzun nion. Horrek lasaitasuna eman zion.

Zergatik zenuen hain argi 60 urterekin erretiratuko zinela?

Bizitza ulertzeko modua da. 70 urtetik aurrera gainbehera fisiko eta mentala nabarmena da eta 10 urte horiek aprobe-txatu nahi nituen. Nahiz eta pentsioan sekulako murrizketa nuela jakin, 60 urterekin erretiratzea erabaki nuen. Gero, egia esan, gauzak aldatu egin dira: udaletzeko lanean kotizatu egiten dut eta estuasuna ahaztu egin dut.

Zer erantzun zizun emazteak alkate-tzarako hautagai izango zinela esan zenionean?

Oso gaizki hartu zuen. Gainera, kanpotik jakin zuen. Etxetik kanpo lan egin ez duten emakumeak kontserbadoreak izaten dira eta politikan parte hartzeari eta halako gauzei beldurra diete. Dena den, beti konfiantza izan du ez naizelako sekula ur handitan sartu kontrolik gabe. Erretiratutakoan goizetan aktibitate fisikoa egingo nuela eta arratsaldean, irakurri edo musika entzun ondoren, alor soziokulturalean lan egingo nuela argi nuen. Lehen hilabeteetan primeran bizi izan nintzen. Ezker abertzaleko munduan laguntzen hasi nintzen, baina zer edo zertan sartzan naizenean buru-belarri sartzan naiz. Hori ikusi zutenean, alkateztarako aurkeztea pentsatu zuten. Nire asmoa emakume gazteak aurrean eta ni bezalako zaharrak bigarren planoan jartzea zen, baina ez nituen konbentzitu. Dena den, ez nuen inondik inora espero alkate irtetea. Hauteskunde gauean "non sartu nauk ni!" pentsatu nuen, baina *a lo*

hecho pecho. Dena den, denbora galdu dut. Gaur egun zoragarria dugu eta Izazpin edo Aralarren ez egotea... Gainera, hemendik 65 urterekin aterako naiz. Baina beno... Oso gustura nago, oinarrizko helburuak aurrera ateratzen ari baikara.

Zein da alkate izatearen alderik gogorrena?

Alderdi gehienek zeinen zerbitzura dauden ahaztu dute. Hemen pertsona gutxi eta alderdi gehiegi dago. Alderdietan dagoen jendeari ez zaio bere kabuz erabakiak hartzeko marjina uzten eta hori barkaezina da. Politika egiteko era hau krisian dago eta berrasmatu egin behar da. Udala herria ondo kudeatzeko enpresa bat da, baina inork gutxik pentsatzen du herri horrek zer nahi duen. Tristeena hori da: jendeak ez dakiela zergatik eta zertarako dagoen. Hori politikoen artean eta,

“Ez dut neure burua 69 urterekin alkate ikusten eta ez dut uste

Urretxurentzat ona izango litzatekeenik”

zoritarrez, langileen artean ere ematen da. Udala instituzio bat da eta horren jabea herria da. Alkateak eta zinegotziek hori ez badute argi, langileek ere ahaztu egiten dute. Alkate izendatu eta berehala langile guztiakin hori elkartu nintzen honakoa esateko: "zortea duzue: enpresa batean lan egiten duzue eta hori urretxuarrena

da. Zuen nagusiek eskatzen dizuetena egiteko zaudete eta zuen nagusiak, aldi berean, bezeroak dira. Enpresa baten helburua bezeroa zerbitzatzea da". Nire ustez, hori barneratzen ari dira.

Alkate izanda, kalera ateratzea eroso al da?

Niretzat bai. Batzuei lanorduetatik kanpo nagoela esaten diet, baina 60 urtetik gorako jendeari begirune handia diot. Alkate itzal handiko pertsona iruditzen zaie eta eurekin abegitsua izatea gustatzen zait. Ez zait batere kostatzen hori egitea. Eguneroko erabakiak teknikariek hartzen dituztela azaltzea, ordea, asko kostatzen da. Eurak dira ordenantzak eta bestelakoak betearazten dituztenak. Alkatearen lana kudeaketa lana da.

2011tik aurrera ez al duzu zure burua alkate bezala ikusten?

Ez. Egoera zein den ikusita, gainera... Bestalde, lau urte nahikoa zerga bada. Jarritzeko konbentzitu nahi banindute, zail jarriko nieke. Ez dut neure burua 69 urterekin alkate ikusten eta ez dut uste Urretxurentzat ona izango litzatekeenik. Dena den, egia da lau urte ez dela nahikoa gauza guztiak aurrera ateratzeko. Zortzi bai. Zortzitik gora ez egotea gomen-datuko nuke.

Zer egingo duzu 2011tik aurrera? Mendia eta pilota gustuko dituzu.

Anaia bat pilota munduan instituzioa da. Amezketako pilota eskolan 33 urte daromatza eta 7-8 mutil kozkorrekin lan egitea baino gauza hoberik ez dagoela esaten du. 15 urtetik aurrera alu batzuk direla eta ez dutela kasurik egiten dio. Anaiak pilota mundura hurbilarazi ninduen eta semea pilotan aritzeak bere belaunaldiko familia pilota zaleak eza-

gutzea ahalbidetu dit. Aberasgarria izan da. Bestalde, txikitan pilota besterik ez genuen ezagutu. Baloia medikuaren semeak bakarrik zuen eta hilean behin ateratzen zuen.

Zein duzu gustuko pilotaria?

Irujo ikusgarria da. Sekulako dohainak ditu, baina ez ditu ondo aprobetxatzen. Partida analizatzeko arazoak ditu. Aimar horretan askoz hobea da eta Retegi zeresanik ez. Sekulako estrategia zen. Bestalde, Galarza I amezketarra oso laguna nuen eta gaztetan partida asko ikustera joan nintzen. Ogeta ikusi nuen, adibidez. Garai hartako pilotari askok lana eta pilota uztartzen zuten. Egungoak askoz ere prestatuagoak daude. Aritz ikustea, adibidez, gozamina da. Urretxun zortea izan dugu. Euskal Herrian jende asko Urretxu pilotaren bitartez ezagutzen ari da. Orain herria benetan ezagutzea behar

dugu: jendea bertaratzea. Horretarako Santa Barbara izango da erreferentea. Hemen ez gara konturatzen, baina ni hona etorri arte ez genekien Urretxu bazenik ere. Guretzat dena Zumarraga zen. Ezkioetik eta Aizpurutxotik beherakoak Zumarragara etortzen ziren. Urretxuarrok hori garbi eduki behar dugu estrategia okerra ez hautatzeko. Urretxuk gauza asko dauzka, eta Zumarragarekin gehiago, jendea erakartzeko.

Zaletasunen kontura itzuliz, mendia ere oso gustuko duzu.

Bai, baina azken hamarkadetako kontua da. Masterra egin nuen garaian lanari eman nizkion eguneko ordurik gehienak. Etxetik 7.30ean irteten nintzen eta 20.30ean itzultzen nintzen. Halako batean kolesterol arazoak azaldu ziren eta zaindu beharra zegoela konturatu nintzen. Ostadar sortu zen garaian igandeta-

ko irteeretan parte hartzen hasi nintzen. Inguru honetan ibili naiz batez ere. Alpeetan ez naiz izan eta Pirinioetara noizean behin bakarrik joaten naiz. Izazpi eta Samiño ingurua asko atsegin dut, Irimok baino aukera zabalagoa eskaintzen baitu. Aralarrek ere aukera handiak ematen ditu. Ama oraindik bizi da eta Aralarrera joaten naizen bakoitzean ama bisitatzeko aprobetxatzen dut. Etxeko txakurra ere zain izaten dut beti. Mendiak asko lagundu dit, baina orain betebeharririk ez dudan asteburuetan bakarrik joan naiteke. Oso motel ibiltzen naiz, aiton baten martxan. Bestelakoan, nahikoa martxa badut... Aralarren elkarte bat dago eta bertako bazkide naiz. Pribilejioa da: 1.000 metrora ur beroa dugu, lgaratzatik hiru ordu laurdenera dago, autoz ezin daiteke gerturatu, estaldurarik ez dago...

boteprontoan

Herriko txoko kuttuna: Santa Barbara. Zorte dugu, aisialdirako toki bikaina baita.

Umetan zer izan nahi zenuen: Horretan pentsatzeko aukerarik ere ez nuen izan.

Pelikula bat: *El bueno, el feo y el malo* hamabi aldiz ikusi dut gutxienez.

Gustuko musikaria: Euskal abeslari eta kanta asko atsegin ditut. Imanolek asko hunkitzen ninduen. Pertsona bezala ez nuen estimatu, baina kantari bezala...

Abesti bat: Imanolek egindako asko. Bat esatearren, *Poeta kaxkarra*.

Urretxun biziko ez bazina, non biziko zinateke gustura? Amezketan. Bizitzak Urretxura ekarri nau, baina Euskal Herriko edozein tokitan gustura biziko nintzateke.

Futbol zalea al zara? Beno... Realeko bazkide izan nintzen, bost urtez-edo, baina Bigarren Mailara jaitsi aurretik baja eman nuen. Ez nengoen batere ados Reala zuzentzeko erarekin. Izan ere, kluba pixkanaka bere izaera galtzen ari zen. Oraingo jardunarekin gurturago nago.

Gustuko jokalaria: Mikel Aranburu esango dut, bere koherentziagatik.

Festa bat: Ez naiz oso festazalea. Santa Lutzi eguna.

Mendi bat: Ganbo.

Hondartza bat: Ez naiz hondartzara joaten, azaleko arazoak baititut. Mendira kapela eramaten dut, azala babesteko.

Telebista saio bat: Alkatetzan nagoene-

tik gutxiago ikusten dut. Kirol saioak ikustea gustatzen zait.

Liburu bat: Joan Mari Irigoienen *Babilonia* asko gustatu zitzaidan.

Zein egunkari irakurtzen duzu? *Berría* eta *Gara* egunkarien harpideduna naiz. Horiek etxean irakurtzen ditut. Udaletxean *Noticias de Gipuzkoako* eta *El Diario Vasco* herriko kronikak irakurtzen ditut.

Janari bat: Berdura. Piperrak batez ere. Hiru zaku ekartzen ditugu Andosillatik.

Ura edo... Ardo beltza.

Alkate bat: Oraingoan artean, Arrasateko Ino Galparsoro estima handian dut. Bergarako Agurne Barruso, berriz, sorpresa atsegina izan da. Lehengoan artean, Jose Luis Elkoro.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatutako
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Ekarri zure argazkiak eta nahi
duzun moduan aterako ditugu:
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

ARROZTEGIA

Altzariak neurritara

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA

☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@mendiola.com
www.mendiola.com

asirauto

BIGAREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINZTA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

Darmanki
Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

TABERNA
Guareta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Otamotz

Herri Aldizkaria

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Oihana - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

IKER

SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - ONATI

Zintzo-Mintzo: arre edo so

90eko hamarkada hasieran Urretxu eta Zumarragan euskararen aldeko pauso handia eman zen: herritar talde batek Zintzo-Mintzo sortu zuen euskaltzaleak biltzeko eta euskara bultzatzeko. Elkartearen ekarpena itzela izan da: kandela piztea eta giza katea, kantu afaria, toponimia liburua, 'Urretxu eta Zumarragako euskara' liburua, 'Otamotz' aldizkaria, otamotz.com atari digitala, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia txertatzeko egindako lana... Bazkideek eta udalek asko lagundu dute, baina zuzendaritza batzordetik pasatu diren lagunek egin dute lanik handiena. Azken urteotan ez da inor azaldu erreleboa emateko prest eta hausnarketarako ordua heldu da: merezi al du jarraitzeak?

Galdera honi eta beste batzuei erantzuteko Zintzo-Mintzo elkarteak gogoeta-prozesua antolatu du. Erabaki hau martxoaren 6ko bazkideen batzarrean hartu zen eta dagoeneko bazkideei, aldizkariko harpidetza ordaintzen dutenei eta bi herriotako elkarteei ekimenaren berri eman zaie. Bi arrazoi nagusi daude gogoetari ekiteko. Batetik, zuzendaritza taldeko kideek eguneroko zurrumbilotik atera eta gogoeta lasai egin behar dela uste dute. "Zintzo-Mintzok urte askotako ibilbidea egin du Urretxu eta Zumarragan euskararen garpeneren alde lanean eta orain arte egindakoaren balantzea egin behar dugu". Hausnarketarako bigarren arrazoia, "agian garrantzitsuena", elkarteak berak bizi duen egoera da. "Urte asko daramagu zuzendaritzaren aldaketarik ez dagoela, ez da erreleborik ikusten eta egoera honetan jarraitzea ez da eramangarria.

Inertzia honetan ez daukagu jarraitzerik. Egoera kezkarri honen aurrean hainbat galderari erantzun beharrean gaude: Zer egin dezakegu elkarte biziberritzeko? Tresnarik egokiena al da herrian euskararen aldeko dinamika sozial indartsu eta iraunkorra sortzeko? Zeinek bultzatuko du hemendik aurrera? Galdera potoloak, baina erantzun baten beharra dutenak".


Elkarteak orain arte egindako ibilbideak izan dituen ezaugarri, baldintza eta egoerrez jabetzea da helburuetako bat. Horrekin batera, Zintzo-Mintzok egun bizi duen egoeraren azterketa egin eta diagnostikoa osatu nahi da. Bukatzeko, bazkideek euskararen normalizaziorako eragile bezala elkartearentzat nahi duten etorkizuna zehaztu nahi da.

Hausnarketa egiteko bi jardunaldi egingo dira. Maiatzaren 22an eta ekainaren 5ean

izango dira, 9.00etatik 14.00etara, Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean. Norberak bizi eta sentitzen duenetik abiatuta, parte hartzea oinarritzat duten teknika eta talde-dinamikak erabiliko dira.

Zuzendaritza batzordeak bi herriotako euskaltzale guztiek parte hartzea nahi du. Erantzunak guztion artean aurkitu nahi dira. "Jakin badakigu egunerokoan estu gabiltzala denok, baina oso garrantzitsua da gogoeta-prozesuan ahalik eta jende gehienak parte hartzea. Gai garrantzitsuak ditugu eskuartean, bidegurutzean gaude, eta gogoetan parte hartzeko eskatu nahi dizuegu".


Zalantzak argitzeko edo izena emateko 615 725 008 telefono zenbakira deitu (Josu) edo zintzo_mintzo@otamotz.com helbidera idatzi behar da maiatzaren 14a baino lehen. Otamotz.com atariaren bitartez ere eman daiteke izena.



egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Piruloaren plazaren antzera



Beste hoberik okurritu ez eta «Justiziak funtzionatzen» duela eta «ongizate estatu demokratiko» batean bizi garela sinestarazi nahi digute gure agintariek, *Egunkaria* kasuko sententziaren ostean. Bai, gure bi herrien artean dagoen Piruloaren plazaren antzera, hamaika petatxo jarri dizkioten arren, ikaragarri itsusia iruditzen zaiguna eta okerragoa dena, kotxez nahiz oinez zoazela, edonork aurretik eraman zaitzakeena. Izan ere, gure ogibide bera duten askok, «lankideak» edo «kolegak» ez diegu sekula deituko, eta agintean diren ordezkari politiko askok justizia egin dela behin eta berriz errepikatu duten arren, nola izango da ba justua asmatutako frogen erruz, komunikabide bat ixtea? Nola izango da ba justua ehunka lagun langabeziara bidaltzea? Nola izango da ba justua hainbat lagun atxilotu eta torturatzea, are gehiago euren aurkako frogak zuk asmatuak direla jakinda? Nola izango da ba justua bost lagun, eta

hauen ingurukoen bizitzako zazpi urtetan horrelako sufrimendua eragitea? Euren txarrean zorteko izan direla ere esan dezakete Martxelok, Iñakik, Joan Marik, Txemak eta Xabierrek, ez bakarrik azkenean egia azalera irten delako, beste askok eurentzat nahiko luketen babes sozial eta politikoa izan dutelako ere bai. Izan ere, azken sententzia honek sortutako poza ez da erabatekoa. Askok ahaztu dutela dirudien arren, Jabierrek eta Teresak, antzeko «delituengatik» urte gehiegi daramatzate kartzelan. *Egin, Egin Irratia* eta *Ardi Beltza* ere itxi zizkiguten, aitzakia oso antzerakoe kin. Urrutira joan gabe gure Joseba Garmendiak ere laster pasatu behar du batere bermerik ematen ez digun tribunaletik. Edo azken hauek seguru benetako gaiztoak direla?

*Posdata. Idoia, egurra partitzeko gogoia sartzen zaizun hurrengoan deitu lasai, guretzat ere mamporrero lana ez da eta batere erraza.

Legazpiko jaietara joateko ohiturarik ba al duzu?

Bestelakoan, Legazpira joaten al zara?



Pilar Angulo



Garai batean joaten nintzen, baina gaur egun ez. Bertan familia dut, baina festetan herritik irteten dira. Dena den, Legazpin bizi izan naiz 16 urtez eta garai hartan inauterietan, festetan eta herrietan antolatzen ziren beste ekitaldi askotan parte hartzen nuen.

Leire Arzelus



Lehen urtero joaten ginela gogoratzen dut, baina haurrak ditugunetik... Azkeneko hiruzpalau urteetan ez gara joan. Oraingoz ez ditugu barraketara eraman. Bestelakoan, aste-oro joaten naiz Legazpira: aquagym egitera, hain zuzen ere.

Abel Gajete



Azkeneko urteetan ez naiz joan, baina aurten joan nahi dut. Zertara? Gauean parranda egitera. Urtean zehar ere, tarteka, bertara joateko ohitura dut. Noizean behin tragoxka bat hartze-
ra joaten naiz lagunekin.


Esteban Agirrezabal



Aspaldi ez naizela joan. Garai batean urtero joaten ginen koa-drilakook. Parranda egitera joaten ginen, gainontzeko gazteak bezala. Bestelakoan, ez dut Legazpira joateko ohiturarik. Donostiara joateko joera dugu. Izan ere, Legazpin aurkitu deza-keguna herrian ere badugu.

Zubertsotan.net Web orriko II. Puntu Erantzun Lehiaketa

Doinuak: 'Irri egiten dunari', 'Kantatzera nijoa' eta 'Haizeak bidali du'



Ane Aierbe

Krisia gora krisia behera ez da besterik entzuten

buruak eta poltsiko denak
hustuta dabilta aurten.
Baina ez gera jabetu oraindik,
krisirik bazela lehen:
naturaz, euskaraz, maitasunaz,
horrenbestetan amesten...
herdoildutako orratzak ez du
hari finarekin josten,
nik neureari eutsiko diot
ezinezkotan sinesten!

Andoni Jaka

Sarri lotsa galtzea ez degu erraza

jende aurrean itoz
galtzen det arnasa,
ez naiz kaka larriai
eusteko kapaza,
nerbioak templatzeke
onena ginkasa!


Nahikari Ganboa

Batzuek asko eta besteek hain gutxi

amak txikitatikan
zidan erakutsi,
denetik duenari
patrikak igurtzi,
ta ezer ez daukanari
behar duna utzi.

iritziz iritzi

Gotzon Aranburu



Drogei buruzko egiak, gazteek esanak

Ez gaude dagoeneko drogatan hasteko adinean, kafea eta Baileys-a uztekoan ere ez, baina gaiaren inguruko hausnarketak topatuz gero irakurri egiten ditut oraindik ere. Leitu dudan azkenari aurreiritziz ekin diot, datorren aldizkarian datorrelako: *KKinzona* fanzinean. Titulua ikusita, "Drogak: hitz egin ezin den tabua", nire artean pentsatu nuen "hauek alde egongo dituk, seguru". Bada ez. Gordin hitz egiten dute drogen aurka, argudioak emanez eta autokritika gogorra eginez. Ez dago hemen artikulua laburtzeko tokirik, baina printza batzuk eskaintzeko bai: "Ez digu balio *telebista eta tabakoa ere drogak dira* esatea. Autojustifikazio indibidualak eta argudio inozoak erabili nahi badi-tuzu gu ez gaude denbora alferrik galtzeko". Edota

"kartzela, suizidioa, medikazioa, erasoak, umore jasanezinak, istiluak, istripuak, laguntza psikiatrikoa, bakardadea, autolesioak, heriotza... Sufrimendua eta drogak binomioa ez da kasualitate". Hau ere bai: "Ihesbide bat izaten da *drogen aurka ipintzea postura kontserbadoreak hartzea da* esatea. Gure helburua osasun mentala eta koherentzia minimo bat gordetzea bada, bai, hartuko ditugu". Azkenerako utzi dut beste hau, drogen arazoaz haruntzago doana: "Gune antiautoritario eta autogestionatuak ez dira boterearen aurkako esperientziak sortzeko gai eta jardun bakarra izaten dute: hiperfesta". Osorik irakurri nahi duenak, badaki non aurkitu *KKinzona*. Hirurogei orrialdeko aldizkaria prestatzea ez da hiperfesta.

Urretxu-Zumarraga Ikastola

Garaialde Lizeoa

Goi mailako Heziketa Zikloetarako nahiz Unibertsitaterako prestakuntza egokiena

Maiatza hasieran EAEn Batxilergorako aurre matrikula epea zabalduko da. Bizitzako hainbat unetan bezala, oraingoan ere erabaki garrantzitsua hartu beharko dute bai familiek baita ikasleek ere. Edozein erabaki hartzeko informazioa izatea ezinbestekoa izaten da, horrek lagunduko baitu erabaki hori arduratsua izaten. Urretxu-Zumarraga Ikastolak heziketaren ikuspegi bateratua eskaintzen du, berau 0 urtetik 18 urte bitartera zabaltzen delarik. Gure xedea konpetentzien garapenean oinarritutako heziketa zabalaren eskaintza da, non gure ikasleek Unibertsitateko edozein Gradu ikasketa egiteko eta Goi Mailako Heziketa Zikloetarako formazioa lortzen dutela bermatzen dugun. Batxilergoa geroko ikasketekiko zubia da eta gure lana lehen aipaturakoaz gain, hiritar arduratsua eta kriti-

koa izan dadin laguntzean datza, gure ustez balore horiek bizitzan arrakasta lortzeko ezinbestekoak baitira.

Gure indargunetako bat irakasleen formazioa eta dedikazioa da, izan ere, ikasleen jarraipena egiteko, gurasoekin egoteko edo zalantzak argitzen laguntzeko 35 orduko lan presentziala egiten dute.

Erabaki asko hartu beharreko garaia izaten da hau, eta horretarako, Orientazio Zerbitzua daukagu Ikastolan, bai orientazio pertsonala, baita bokazionala ere eskaintzeko. Zerbitzu honek hainbat ekintza antolatzen ditu: familia eta ikasleei zuzendutako Gradu eta Heziketa Ziklo desberdinen aurkezpen bilerak, Unibertsitate desberdinetako informazio bilerak, Unibertsitatean Sartzeko Hautaprobetarako aurre matrikula, ikasle ohiek egindako ikasketen zuzene-

ko informazioa...

Heziketa programa orokorrarekin batera programa osagarriak lantzen dira ikasleekin, irakasleekin eta baita familiekin ere: sexu heziketa, genero indarkeriaren prebentzioa, droga mendekotasunaren prebentzioa...

Lehen esan dugun bezala, pertsonaren heziketa integrala da gure helburua, eta horretarako, eta Ikastolako partaide direla bermatzeko, gure ikasleek gestio organoetan eta Ikastolan aurrera eramaten ditugun hainbat proiektutan parte hartzen dute.

Azken batean urteetako esperientziak eta lortutako emaitzek abalatzten gaituzte, besteak beste gure ikasleek espedienteetan lortzen duten nota EAEko batez bestekoa baino hobea delako. Horrez gain, EGA ateratzeko prestakuntza berezia ere jaso-tzen dute.



www.uzikastola.net
urretxu@ikastola.net

Labeaga kalea, 25 - Urretxu - ☎ 943 72 21 12








Extremadurako Jerte harana.

Carlos Mediavilla.

zuek bai jakin!

Iban Marcos: Zumarragako bidaiari nekaezina

Iban Marcos zumarragarra Edinburgora joan zen duela 10 urte lagun bat bisitatzera eta ordutik makina bat tokitan bizi izan da: Eskozian, Tailandian, Australian, Mexikon, Ingalaterran eta Polonian. Bere neskalaguna poloniarra da eta Gdansk hirian bizi da. Finantza-analista eta gaztelera irakaslea da.



Iban Marcos, Londoneko ostatu batean.

Zer diozu zure familiaz?

Aitona-amonak Valladolidetik etorri ziren. Aitonak Orbegozon lan egiten zuen eta Itsason bizi izan ziren. Hala, nire aitak primeran hitz egiten du euskaraz. Seme bakarra da, Legazpin lan egin zuen eta urte askotan Urola taldeko zuzendaritzako kidea izan zen. Bere enpresa itxi zenean kamioi garbiketara tailerra izan zuen Santa Lutziko gasolindegia ondoan. Bere garaian Galeperra elkartearen eta UGT sindikatuaren tabernak hartu genituen eta ama sukaldari lanetan aritu zen. Lau anaia gara.

Nola oroitzen duzu zure haurtzaroa?

Leturiatarren plazan bizi ginen eta ondoren Elgarrestamendira joan ginen. La Salle-Legazpi ikastetxean egin nituen ikasketak. Batxilergoko lehen bi mailak egin ondoren, Mekanika ikasi nuen. Lanbide Heziketa bukatzeko asmoa nuen, baina lanean hasi nintzen eta ikasketak utzi nituen. Bilboko mekanizatu enpresa batean lan egin nuen. Ondoren, hiru bat urtetan, Galeperra elkarteko tabernan eta Oñatiko enpresa batean aritu nintzen. Lagun bat Edinburgon bizi zen eta bertara joatera gonbidatu ninduen. Hamar urte pasatu dira ordutik. Toki berri bat ezagutzeko eta giroz aldatzeko asmoz joan nintzen, baina ez nintzen itzuli. Ordura arte ez nintzen herritik atera, baina hemengo bizimoduak ez ninduen asebetetzen.

Zerk bultzatu zintuen han gelditzera?

Hasieran dena berria eta kitzikagarria da. Toki berriak eta jende berria ezagutu nituen eta probatzea erabaki nuen. Gauzak gaizki ateratzen bazitzaizkidan etxera itzultzeko aukera nuen. Ez nekien ingelesez hitz egiten eta hasieran inork nahi ez zituen lanak hartu behar izan

nituen. Halako batean zortea izan nuen eta jatetxe batean hartu ninduten. Barran lan egiten nuenez, ez nuen bezeroekin hartu-emanik. Zerbitzariak eskariak idatzita ekartzen zizkidaten eta nik horiek irakurri eta edariak prestatu behar nituen. Hasieran gogorra izan zen, jatetxea frantsesa baitzen. Edari guztien izenak ikasi behar izan nituen, bai frantsesez eta bai ingelesez. Baina jendeak asko lagundu zidan eta, gainera, ingeles eskoletara joan nintzen. First Certificate titulua lortzeko azterketa egin ez izanaz damu naiz. Bi urte eta erdi eman nituen Edinburgon.

“Edinburgora beste toki bat ezagutzeko eta giroz aldatzeko asmoz joan nintzen, baina ez nintzen itzuli”

Zergatik utzi zenuen Eskozia?

Behin tokiak ezagutzen hasita... Eskozian zehar asko bidaiatu genuen, baina jendeak beste toki batzuetaz hitz egiten zidan eta jakin-mina piztu zitzaidan. Betidanik Australiara joateko gogoia nuen eta Edinburgon aurreztutako diruarekin urtebeterako joatea pentsatu nuen. Baina nire lagunak beste toki batzuk ere ezagutu nahi zituen eta munduari bira ematea eta bi geldialdi egitea erabaki genuen: bata Tailandian eta bestea Australian.

Zer moduz Tailandian?

Sei hilabete eman genituen bertan. Ez genuen lanik egin, bidaiatu eta gozatu soi-

lik. Suarekin malabarismoa egiten ere ikasi genuen. Tailandia herrialde oso ederra da, baina hiru hilabete igaro ondoren dena berdina dela iruditzen zaizu. Jendea oso ondo portatu zen eta janaria zoragarria zen, baina Australiara joan nahi genuen. Lan egiteko bisa lortzea oso zaila denez, turista bisarekin joan ginen. Diru gutxi genuen eta Tailandian zilarra erosi genuen Australian saltzeko asmoz. Eskozian ez zitzaigun ezer falta eta hura, berriz, abentura izan zen.

Ez al zeundeten urduri?


Ez. Motibagarria zen. Eguna igarotzeko adina diru besterik ez genuen, ahal genuen bezala joaten ginen toki batetik bestera, ahal genuen tokian lo egiten genuen... Lanik ematen ez zigutenez, malabarismoak egiten genituen. Ikusleei ezin genien dirurik eskatu, eurek ematea itxaron behar genuen. Malabarismoak eginez eta zilarra salduz bizirautea lortu genuen. Sydneytik Brisbanera joan ginen eta han itsasontzi batean lan egin genuen janaren eta ohearen truke, baina nagusia turistei baleak erakustera joan zen eta ezer gabe utzi gintuen. Paperik gabe fruta jasotzen lan egin zitekeen toki batera joan ginen, baina legea aldatu zuten eta papearak eskatu zizkiguten. Ondoren, turistek herrialde hura zeharkatu ondoren utzitako furgonetak merke eros daitezkeela jakin genuen. Brisbanera itzuli nintzen bat erostera eta, ondoren, laguna hartu eta iparraldera joan ginen. Toki asko ezagutu genituen. Hondartzetan eta soroetan lo egiten genuen, surflarien hondartzetan dutxatzen ginen..., banandu ginen arte.

Zer egin zenuen banandu zinetenean?

Brisbanera joan nintzen furgoneta saltzera. Bidean motorra hautsi zitzaion eta kilo-



Australian, diru truke eraztunak eskaintzen.



Tailandiako Elefanteen irlan, bere anaiarekin.

metro eta erdi egin nuen furgonetari bultzaka. Gasolindegi batera iritsi nintzen eta kutxazain automatikoa ez zebilen. Horren etsita ikusi ninduten, non kafe bat eta ogi-tarteko bat eman zizkidaten. Azkenean garabiak herri batera eraman ninduen eta bertan egun batzuk eman nituen: motorra konpondu zuten arte. Hoteleko tabernan lagun batzuk egin nituen eta Euskal Herrikoa nintzela esan nienean San Fermin jaiak ezagutzen nituen galdetu zidaten. Baietz esan nienean, aluzinatu egin zuten: autoa utzi zidaten, euren etxera eraman ninduten entzierroa telebistan ikustera... Oso ondo portatu ziren nirekin.

Zer egin zenuen ondoren?

Tailandian mexikar bat ezagutu nuen eta mezu bat bidali nion Tailandiara itzultzeko asmoa nuela esanez. Berehala erantzun

zidan, berak ere familiarekin hara joateko asmoa zuela esanez. Nire anaia gaztea ere bertara joan zen. Ondoren, Eskoziara joan, Zumarragara itzuli eta Mexikora joan nintzen. Nire lagunak hegazkin ultrarinak ditu eta berarentzat lan egin nuen. Pilotatzen ikasi nuen, hondartzan turistei hegaldiak saltzen nizkien... Toki asko ezagutu nituen, baita Kalifornia ere. Mexiko erotzekoa da. Hiriburua asko gustatu zitzaidan, baina erraldoia da eta gauza askotara ohitu behar da: distantzietara, une oro jendez inguratuta egotera, tentu handiz ibiltzera... Bakarrik irteten nintzen kalera, galdu egiten nintzen eta jendearen laguntza lortzeko komeriak izaten nituen: jendeak ez du edonorekin hitz egin nahi eta nik ere ez nuen edonor gelditu nahi.

Zenbat denbora egon zinen Mexikon?

Sei hilabete. Ondoren UGTren taberna hartu nuen dirua irabazteko eta hurrengo goi-denboraldian Mexikora itzultzeko. Euri garaian ez du merezi bertara joatea.

Zer moduz moldatu zinen Zumarragara itzuli zinenean?

Zumarragara etortzen naizenean ondo pasatzen dut, oporretara etortzen bainaiz. Baina hemen bizitzea beste kontu bat da. Gauzak asko aldatu dira joan nintzenetik. Lagun asko ezkondu egin dira eta seme-alabak izan dituzte, adibidez. Mexikotik etorri nintzenean hemengora ohitu nintzen, baijan ez ninduen asebetetzen. Denbora gutxirako etortzen naiz beti eta familia eta lagunak bisitatzeko soilik. Amak ez zuen Edinburgora joatea nahi, baina semea kanpoan izatera ohitu da. Lagunek lehen erotzat hartzen ninduten,



Mexikon, bere lagunarekin.

baina orain inbidia pixka bat ematen die egin dudanak. Ez dira herritik irten zaleak, baina nire eraginez bidaia batzuk egitera animatu dira.

Zer moduz moldatu zinen Mexikora joan zinen bigarren aldian?

Bikain. Mundu guztia oso ondo portatu zen nirekin. Gainera ultrarin pilotu titulua atera nuen eta haizeari buruzko guztia ikasi nuen. Ez nituen bidaiariak eramaten, baina hegazkinak muntatu eta desmuntatzen nituen, eraikitzaileentzat obren argazkiak ateratzen nituen... Sei hilabeteren bueltan Europara itzultzea erabaki nuen: dagoeneko 27 urte nituen eta etxetik gerutuago egon nahi nuen eta egonkortasun handiagoa izan nahi nuen.

Nora joan zinen?


Eskoziara itzuli nahi nuen, Edinburgo ezagutu dudan hiririk onena baita. Baina ez nuen dirurik eta txartel merkeena

Londonera zen. Egia esan, moda gustuko dudanez, beti izan dut London ezagutze-

*“Tony Blair-en etxean izan nintzen, nire nagusia bere lagun ona baitzen eta catering-
ez arduratzen baitzen”*

ko gogoia. Ingelesa dakidanez, bankuan kontua dudanez eta gizarte segurantzako zenbakia dudanez, lana bilatzea erabaki nuen. Baina espainiarrek ez dute ospe oso ona bertan eta denek lanik ez zegoe-la esaten zidaten. Erosketa batzuk egin eta Edinburgora joatea erabaki nuen.

Poloniako Gdansk hirian, zero azpitik 17 gradutara.



Erosketak egiten ari nintzela, azken saia-
kera egin nuen. Oxford Streeteko pub
batean sartu nintzen eta jendea behar
zutela esan zidaten. Bertan ezagutu nuen
nire neskalaguna.

Denbora asko izan al zinen Londonen?

Neskalaguna Poloniarra itzuli zen tesia
bukatzera eta nik lanpostuz aldatu nuen.
Jatetxe italiar bikain batera joan nintzen.
Tony Blair-en etxean izan nintzen, nire
nagusia bere lagun ona baitzen eta cate-
ring-
ez arduratzen baitzen. Jatetxean
arduradun postua nuen eta gustura nen-
goen, baina lan ordu asko ziren eta neka-
tu egin nintzen. Gainera, neskalagunak
Polonian lan ona aurkitu zuen eta bertara
joatea proposatu zidan. Oraindik ez nuen
bere familia ezagutzen eta joatea erabaki
nuen. Hango bizimodua Ingalatarrakoa
baino lasaiagoa da eta gustatu egin zitza-
idan. Jatetxeko manager ikastaroa buka-

tzea eta ondoren Poloniara joatea erabaki nuen. Erabaki latza izan zen, Ingalaterran lanpostu ona bainuen eta diru asko irabazten bainuen. Jatetxea bikaina zen. Italian sekula izan ez naizen arren, jate-txeari esker hango gauza asko dakizkit.

Zer moduz Polonian?

la hiru urte daramatzat bertan. Polonieraz hitz egiten ikasi dut eta Thomson Reuters enpresan finantza-analista naiz, baina bertara heldu nintzenean hiru hilabete eman nituen langabezian: nik ez dut karrerarik eta han gehienek Unibertsitate ikasketak dituzte.

Nola lortu zenuen lanpostua?

Gaztelera eskolak ematen nituen eta akademia batean hartu ninduten. Lan erraza izango zela uste nuen, baina gaztelera irakastea nik uste baino zailagoa da eta neure burua prestatu nuen. Gramatika ikasi behar izan nuen. Merezi izan zuen. Akademian Thomson Reuters enpresarentzat lan egiten zuen Gasteizko mutil bat ezagutu nuen eta berak alde egin behar zuela eta gaztelerez zekien ordezkotzat behar zutela esan zidan. Curriculum bidali nuen eta hartu egin ninduten. Thomson Reuters enpresatik irten ondoren gaztelera eskolak ematen ditut.

Zein da zure lana Thomson Reuters enpresan?

Portugal, Espainia, Italia, Irlanda eta Erresuma Batuko informazioa biltzen dut eta datu base batean jartzen dut. Informazio hori inbertitzaileen esku jartzen dugu eta, hala, hauek denbora aurrezten dute. Poliki-poliki nire bizimoduak hobera egin du. Dagoeneko poloniera menperatzen dut eta hori integrazteko oso lagungarria da.

Nolakoa da bizimodua Polonian?

Hasieran jendeak ez du gertutasunik azaltzen. Neskek ez dute musu emanez agurtzen, eskua emanez baizik. Bestalde, adinekoei adeitasun handiz zuzendu behar zaie. Batzuetan gehiegizkoa iruditzen zait, baina ohitzea da kontua. Poloniako arazoa soldatak dira.

Bertan gelditzeko asmoa al duzu?

Oraingoz bai, poloniera titulua eskuratu nahi baitut.

Zer dio zure neskalagunak?

“Beti esan dut egunen batean Euskadira itzuliko naizela, baina Donostiara izango da”

Gaztelera ikasten ari da. Badaki ipurtarin samarra naizela, baina berari ere asko gustatzen zaio bidaiatzea. Duela gutxi Mexikon izan gara eta aurki Belgikara joango gara.

Ezagutu dituzun tokietatik guztietatik, zein aukeratuko zenuke?

Denetatik zer edo zer hartuko nuke. Esan bezala, Edinburgo ezagutu dudana tokirik zoragarriena iruditzen zait. Beharbada ezagutu nuen lehena delako izango da. Oso ondo pasatu nuen eta jende oso interesgarria ezagutu nuen. Australiara ere itzuli nahi dut, Zeelanda Berrira joateko hain zuzen ere. Ez litzaidake Australian edo Mexikon bizitzea gustatuko, oso urrutiti baitaude. Sekula ez zait ezer larririk gertatu, baina nork daki... Bidaiatzea gusta-

tzen zait, baina dagoeneko egonkortasuna ere eskertzen dut.

Zumarragara itzuliko al zara inoiz?

Beti esan dut egunen batean Euskadira itzuliko naizela, baina Donostiara izango da.

Zer hizkuntza hitz egiten dituzu?

Ingelesa, poloniera eta gaztelera. Orain italiara ikasten ari naiz. Euskaraz ondo hitz egiten ikasi ez izanaz damu naiz. Itzultzen naizenean euskara ikasiko dut.

Urte hauetan guztietan jende asko ezagutuko zenuen...

Espainiarrekin ez elkartzen saiatzen naiz, tokian tokiko hizkuntza ikasi ahal izateko. Behin, Londoneko ostatu batean, mutil espainiar bat jabeari zer edo zer azaltzen saiatzen ari zen eta ez zuen lortzen. Laguntzea erabaki nuen. Nongoa zen galdetu zidan eta Donostiakoa nintzela erantzun nion. Berak Zumarragako mutil batekin zegoela erantzun zidan. Ni ere Zumarragakoa nintzela esan nionean, laguna esnatzera joan zen. Nire aitaren lagun batean semea zen! Deitu genienean etxeokok aluzinatu egin zuten.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Snowboarding, kite surfing, karting, backgammon, argazkigintza... Bildumazalea ere banaiz. Billeteak eta txanponak eta bisitatzen ditudan herrialdeetako pospolo kaxak eta katiluak biltzen ditut. Tatuaiak ere bai... Lau ditut.

Herrialdeak ere bai...


Malasian, Txekian, Suedian, Frantzian, Alemanian... izan naiz. Udan Errusiara joan behar dut, autoz, lankideekin. Balkanak, Uzbekistan, Kazajistan... zeharkatuko ditugu.

80ko hamarkada

Zelai Ariztikoko pala txapelketako sari banaketa ekitaldia

Jesus Iturbe zinegotzia eta Jose Julian Irizar alkatea, Rufino Laka eta Benito Martinez irabazleekin.





Euskal Herria atzerritarren ahotan

Jose Felix Diaz de Tuesta

Idazleak garai bateko olerkari, historialari, politikari eta bestelako pertsona ospetsuek nola ikusten zuten/duten Euskal Herria azaltzen digu. Ezinbesteko perlatxook oso laguntzen digute Euskal Herriaren inguruan gure mamutxoak, konplexuak eta lotsak gainditzeko. Izan ere, euskaldunok, harrotasuna alde batera utziz, besteek adierazpen txarrak esan dituztela pentsatu izan dugu gehienetan. Eta hori ez da hala. Bestela,

jakin nahi al duzu zer zioen Shakespeare handiak gure herriko probintzia bati buruz? "Nafarroa miragarri izango da munduarentzat". Eta Pasaiara behin eta berriz etortzen zen Victor Hugok? "Euskaldunak ez dira ez espainiar ez frantziar, euskaldun baizik". Hark ondotxo zekien zertaz ari zen. Bergamin, Orson Welles, Monserrat Caballe eta beste askoren iritziak ezagut ditzakezu.

Andoni Salamero

Joy Division

Jarri Joy Divisionen *Transmission* kanta eta ziur dantza egiteko gogo sartuko zaizula. Edota ukabilak itxi, hortzak estutu eta "dance, dance, dance, dance to the radio" abestuko duzu amorrutik. Manchesterren 1970eko hamarraldiaren amaieran sortutako taldea emozio sortzaile bikaina da eta, 1980an desegin zen arren, bere doinuek freskotasanari eusten diote. Ian Curtis abeslari enigmatikoak bere buruaz beste egin

izanak ere dezente lagundu du taldearen kondaira handitzeko. Baina Curtis hain zen berezia... Berezia kantatzeko moduan, mugitzean eta idaztean. Dezente izan dira Joy Divisionen post-punk doinuek eta estetika jakin hori hartu dituztenak: The Smiths, The Cure edo Los Planetas. Curtisek bere buruaz beste egin ondoren, taldekideek New Order osatu zuten. Bikaina hura ere.

Igor Susaeta



Das weiße band

Michael Haneke

Bortizkeriaz mintzo da beste behin Michael Haneke *Das Weiße Band*-en (Xingola zuria). Ageriko bortizkeriaz, ezkutukoaz, moralaz, etxe barrukoaz, gizartekoaz, hezkuntzan erabiltzen denaz... eta batez ere indarkeriak jendearengan sortzen duen eraginaz. Dena testuinguru itogarri batean: Lehen Mundu Gerra aurreko Alemaniako herri txiki bat. Umeak eta emakumeak dira bortizkeria hori gordinen pairatzen dutenak.

Hogei urte geroago nazismoa sortuko zuen gizartea. Adituek nazismoaren sorrerarekin lotu dute lana, baina Hanekek ez du nahi Alemaniako kasura bakarrik mugatzea. "Absolutismoa beti bihurtzen da terrorismo". Bortizkeria herriko haurren hezkuntzan txertatzen da eta inozentzia desagertu egiten da. Pelikula hau maiatzaren 28an eskainiko da Zelai Ariztin.

ButaK 21 zineklub taldea

Beasaingo Ehunmilak probako ibilbidea osatu duten lehenak

Uztailaren 16an Ehunmilak ultratrail proba izango da. Euskal Herrian lehenengo aldiz antolatuko da halako mendi lasterketa luzea. Mendizaleek 167 kilometro osatu beharko dituzte: Beasaindik irtengo dira eta Txindoki, Ganbo, Aizkorri, Erlo, Izazpi eta Erriotik pasatuko dira. Astakeria? Gorka Azkarate urretxuarrak eta Ezkio-Itsasoko Jaione eta Gorka Sasieta anaia-arrebek dagoeneko ibilbidea oso-osorik osatu dute.

Aizkorri mendiaren gailurrean.



Noiz eta nolatan hasi zineten mendi lasterketetan?

Gorka Sasieta (G.S.): Betidanik bizikletan ibili izan naiz, bai errepidean eta bai mendian, baina korrika Aizkorriko maratoiak erakarrita hasi nintzen, 2004an. Hau izan zen nire lehenengo mendi lasterketa, gustatu egin zitzaidan eta ondoren inguruko motzagoetara joaten hasi nintzen.

Jaione Sasieta (J.S.): Mendi bizikletako lasterketak utzi ondoren, Aizkorriko maratoian ateratzeak erakarri ninduen. Hau entrenatzeko mendi lasterketetan hasi nintzen eta gustatu...

Gorka Azkarate (G.A.): Mendian betidanik ibili izan naiz, Iñaki Beitiaren omenezkoaren gisako ibilaldi luzeetan, oinez betiere, eta 2005ean Aizkorriko maratoian parte hartzea pentsatu nuen, erronka gisa. Ordutik urtero hartu dut parte lasterketa

horretan. Bestelako mendi lasterketetan ere orduan hasi nintzen.

Zein probatan parte hartu duzue?

G.S.: 2004tik hona Aizkorrin urtero parte hartu dut. Hemen ingurukoetan ere bai: Aloñako igoera, Berako maratoi erdia, Sarakoa... Jaione hasi zenetik biok elkarrekin egiten ditugu lasterketak. Luzeagoei dagokienez, Hiru Handiak (Aizkorri-Anboto-Gorbea, 100km-koa), Anetoko ultratrail-a eta Porta del Cell egin ditugu.

J.S.: 2006tik hona Gorkak aipatutako horietan parte hartu dut.

G.A.: Aizkorrikoaz gain, hemen inguruko hainbat lasterketatan parte hartu dut: Aloñakoa, Berakoa, Aramotzekoa, Sakanakoa... Lasterketak asko ugaritu dira azken urteotan eta ia bailara guztietan antolatzen da bakarren bat. 2008an Anetoko ultratraila ere egin nuen, Sasietarrekin batera.

Asko entrenatzen al duzue?


G.S. eta J.S.: Ahal dugunean entrenatzen dugu, astean hiru aldiz asko jota. Neguan elurretan ibiltzen gara eta udaberri aldean lasterketa asko dago. Hauetan parte hartuz gero sasoiari eustea erraza da.

G.A.: Behar baino askoz gutxiago eta nahiko modu anarkikoan entrenatzen dut. Astean zehar apenas izaten dut denborarik, bidegorrian korrika egiten saiatzen naiz ahal dudanean. Asteburuan, mendi ibilaldi luzeagoak egiten saiatzen naiz ahal dudan neurrian. Lasterketetan parte hartzeak sasoi puntua mantentzen laguntzen du.

Nolatan animatu zarete Ehunmilak egitera?

G.S.: Proba hauek erakarpen berezia dute. "Kapaz izango ote nauk?" pentsatu,

Txindokiko puntan.



buruari bueltak ematen hasi eta azkenean izena eman...

J.S.: Gisa honetako proba pare bat egin ditugu eta bereziak dira: leku asko ezagutzen dira, giro polita egoten da... Erronkak ere motibatzen du.

Nola prestatu zenuten ibilbidea ezagutzeko egin zenuten saio hura?

G.S. eta J.S.: Egia esan asko entrenatu gabe joan ginen. Izan ere, garai hartan ez ginen lasterketetan parte hartzen ari.

G.A.: lazko udan Pirinioetan dezente ibili nintzen eta hori izan zen prestaketa. Irailean lehenengo saiakera egin genuen Gorka Sasietak eta biok, baina 80 kilometro egin ostean Ametzetan erretiratu egin ginen: bidea aurkitzeko zailtasunak izan genituelako eta denbora asko galdu genuelako. Aste batzuk pasatu ostean, urriaren amaieran bigarren saiakera egin

genuen, oraingoan hirurok, eta ondo atera zen. Ibilbidea hobeto prestatu genuen bigarren saiakerarako, ezagutzen ez genuen zatiren bat modu isolatuan bisitatu.

Bi egunetan egin zenuten, ala?

G.S. eta J.S.: Bai. Urretxutik irten ginen eta 24 ordu eta erditan Lizarrustira iritsi ginen. Han afaldu, lo pixka bat egin eta hurrengo egunean beste 21 ordu behar izan genituen Urretxura iristeko.

G.A.: Bigarren saiakeran ere une batzuetan zalantzak izan genituen bidearekin eta denbora pixka bat galdu genuen. Horrez gain, pisu dezente generaman gainean. Denbora gutxiagoan egiteko moduan geundela uste dut.

Nolakoa izan zen esperientzia?

G.S. eta J.S.: Gogorra izan zen, baina gozatu ere asko gozatu genuen. Toki ba-

tzuetan ingurura begiratu eta pasatako mendiak ikusten dira: Aralar, Ernio, Izarraitz... Hori gauza oso ederra da. Lizarrustiko egonaldia ere benetan ederra izan zen: afaria, lo egiteko tokia, gosaria eta tratua ezin hobeak izan ziren.

G.A.: Esperientzia sekula ahazten ez den horietakoa izan zen. Izugarria. Une gogorak ere pasatu genituen, baina behin amaituta, horiek lehenago ahazten dira. Ondorengo egunetan hankazpiak minduta izan genituen, baina azkar errekueratu ginen. Ehunmilak probako ibilbidea osorik egin duten lehenengoak izan gara, ziurrenik...

Zer izan zen gogorrena? Zati zehatzen bat, pilatutako nekea, erretiratzeko gogoari aurre egin beharra...

G.S.: Gogorrena, agian, Mutilotik Beasainerako zatia. Lierni inguruan ilundu egin zuen eta, etxetik gertu izan arren, ez genuen zati hori ezagutzen. GPSan markatuta geneukan bidea ez zen batere zehatza eta bidea aurkitu ezinik ibili ginen. Ordurako erabat nekatuta gindoazen eta bidea bilatzen denbora galdu eta zati batzuk alferrik egitea amorragarria izan zen. Espero baino askoz denbora gehiago behar izan genuen Beasainera iristeko. Lehenengo gaua ere nahiko gogorra izan zen, gaua luzea zelako eta gainera goizaldean oso eguraldi txarra izan genuelako.

J.S.: Beasaingo zatia eta lehenengo gaua, batez ere euriarengatik. Goizaldeko tartea nahiko etsita egin nuen, eskerrak gero eguraldia hobetu zen!

G.A.: Uneren batean Beasainera sekula ez ginela iritsiko pentsatu nuen... Bestalde, lehenengo etaparen amaieran, Txindokira gauez iritsi ginen eta

oraindik Ganbo mendia igotzea eta Lizarrustira jaitea falta zen. Aralar gauez zeharkatu genuen, GPSaren laguntzaz, eta gogorra egin zitzaigun Lareoko urtegira iritsi ginen arte.

Zer diozue ibilbideaz?

G.S. eta J.S.: Ibilbidea gogorra dela zalantzarik ez da, baina ikusgarria ere bada. Guk egin genuenean Lizarrustitik Etxegaraterako pagadian argitu zuen egunak eta benetan ikusgarri zegoen.

“Proban parte hartzeko asmoa dutenei aurretik ibilbidea egiteko gomendatuko genieke, zatika bada ere”

G.A.: Ibilbidea oso gogorra da, oso luzea eta tranpaz josia. Denok buruan dauzkagun igoera nagusiez gain (Txindoki, Aizkorri), gorabehera asko daude hasieratik bukaeraraino. Edertasunari dagokionez, nondik igarotzen den ikusi besterik ez dago: zoragarria da.

Zer aholku emango zeniekete parte hartzeko asmoa dutenei? Prestaketa, jana eta edana, eraman beharreko materiala...

G.S.: Aurretik ibilbidea egiteko, zatika bada ere. Lasterketako asteburuan ondo markatuta egongo da, baina hala ere nik uste dut oso garrantzitsua dela ibilbidea ezagutzea.

J.S.: Aurretik ibilbidea egiteko eta lasai hasteko, oso luzea egiten baita.

G.A.: Aurretik ibilbidea ezagutzea oso mesedegarria dela uste dut. Baita hasierako kilometroetan besteren baten erritmoarekin ez itsutzea ere. Goraldiak, makalaldiak... horrelako ibilbide luzean denetik gerta daiteke, lasai hartzea komeni da.

Zuek parte hartzeko asmoa al duzue?

G.S. eta J.S.: Bai, Jaionek eta biok izena eman dugu.

G.A.: Ikusiko dugu, baina ziur aski ez.

Zerk bultzatzen du pertsona bat mendian korrikan 160 kilometro baino gehiago egitera?


G.S. eta J.S.: Lasterketen munduan sartzen zara eta zeure buruari erronkak jartzten dizkiozu.

G.A.: Zaila da esatea... Erronka da, zeure burua probatu nahia... Edozein kasutan, erokeria puntu bat ere baduela onartu beharra dago, mendian gauez ibiltzea psikologikoki gogorra egiten baita.

Beasaingoaz gain, beste erronkarik ba al duzue? Zein da zuen ametsetako proba? Mundu mailan ospea duen lasterketaren bat...

G.S. eta J.S.: Aspalditxotik Alpeetako Ultratrail du Montblanc lasterketa buruan dugu. Ehunmilak probaren nahiko antzekoa da luzera eta gogortasun aldetik. Bietan apuntatu gara Jaione eta biok. Alpeetakoak xarma berezia du, mundu osoan ezaguna baita gogortasunagatik eta parajeagatik. Alpeetan ez gara sekula izan eta badugu ezagutzeko gogoia. Hau abuztuaren bukaeran da eta ordurako Ehunmilak lasterketatik errekueratuta egotea espero dugu.

G.A.: Montblanc-eko proban parte hartzea gustatuko litzaidake bizitzan behin gutxienez.



Alex Areizaga

Informatika

'C cleaner'

Osabak bakarrik ez, badirudi azkenean familia osoak lagunduko didala gomen-dioak bilatzen. *C cleaner Windows* sistema operatiboa erabiltzen duten ordenagailuak garbitzeko erreminta da. Garbiketa sakon bat burutzen du eta sistema egoera onean mantentzen du. Disko gogorreko espazioa ere handitzen du, nonahi galduta dugun zaborra kenduz. *C cleaner*-ek fitxategi tenporalak, instalazioen atzetik solte utzitako artxihoak eta azkenaldian erabilitako fitxategien zerrendak ezabatzen ditu. Paperontzia eta nabigazio arrastoak ere ezabatzen ditu. Ezabaketak egin aurretik elementu horietatik zein gorde nahi ditugun erabakitzeko aukera ere ematen du. Honez gain, *Windows*-eko erregistroaren garbitzaile bat ere badu *C Cleaner*-ek, baimendu gabeko sarrerak bilatzen dituena. Sistema operatibo hauek onartzen ditu: *Win98*, *98SE*, *Me*, *2000*, *NT*, *XP*, *2003*, *Vista* eta *7*. Mila esker gomendio honengatik familia!



Miren Arrieta

Osasuna

Eguzkia

Eguzkiak A, B eta C motako erradiazio ultramoreak igortzen ditu. Erradiazio arriskutsuenak ozono geruzak xurgatzen ditu, baina kutsaduraren eraginez ozonoa kaltetzen den heinean babes hori arriskuan jartzen dugu. UV-C arriskutsuenak dira eta ez dira lurrazalera iristen. UV-B, azaleko lehenengo geruzak zeharkatzen ditu, azalean erredurak eta azaleko minbizia sor ditzake, udan eta eguerdiko orduetan jasotzen ditugu batez ere. UV-A, leihoetako kristalak eta azala zeharkatzen ditu, mantxak, zimurrak eta minbizia sor ditzake, solarium-etako erradiazio hauek oso arriskutsuak izan daitezke. Eguzkia hartzea osasuntsua izateko hainbat neurri kontuan hartzea ezinbestekoa da. Udan 12.00etatik 17.00etara eguzkiak gogor jutzen du. Ordu horiek saihestu. Eguzkitako betaurrekoak, biserak eta kamisetak erabili babesteko. Azal bakoitzerako krema egokia aukeratu eta etxetik irten aurretik eta bi orduetik behin eman. Laino dagoenean ere babestea ezinbestekoa da. Gogoratu hartutako eguzki ordu guztiak azalean metatzen doazela bizitzan zehar, azalak "memoria" du.

Gela eta uhartea

Angelinesek hazita edukiko du eskua. Bigarren aldiz ari da tratamendua hartzen. Lehenengoak onetik soilik kendu omen zion. Galdu zituen hainbeste gauza! Hala dio berak behintzat. Sinesten diot. Arrastaka sartuko ditu gorputza eta arima gelara. Belaunetarainoko falda tubo itsas urdina, pantyrik ez, ortopediakoak direla argi eta garbi adierazi nahi duten oinetakoak. Gerritik gora ere ez du eramango poz handirik, nahiz eta blusa loreduna izan. Bolatxoz betetako artile-fineko txaketa tristeegia da. Ilea sorbalda gaineraino eta koipetsua daramalako eta aurpegiak ez duelako sosegu eta argitasun izpirik, jakin nuen ez dela moja.

Angelinesek ez du familiaz galdetzerik nahi izango. Badaki defentsa onena eraso dela. Gelara norbait laguntzera datozen guztiengana hurbiltzen saiatuko da, denengana txandan-txandan. Aukera uzten badiote laguntzera datozenei tankerako zerbait esango die: "Norberak egin behar du aurrera hemen. Eroritakoan, jaiki norbera jaiki behar da". Hori esanda, hazi-hazitako bere eskua erakutsi eta hurrengo esaldian, gelan dagoen kasurik tragikoenari buruz hizketan hasiko da, ezkutuka bezala.

Josune ahizparekin joan bada ahizparengana joango da Angelines. Josunek ez dio begiratu ere egingo, gainditu egiten du emakumeak. Ahizpak, berriz, errespetuz irribarre egin izan dio eta gero emakumea gainetik nola kendu ezin asmatuta larri ibili izan da. Gazteak dira biak: Josune eta ahizpa. Antza handia dute. Gela honetan, ordea, oso erraz bereizten dira: Josune, beti, buruan loredun zapi handia dakarrena izango da.

Esan bezala, batzuetan ahizparekin etortzen da eta besteetan bakarrik. Gaur ere jaka gorri-gorria ekarriko zuen, itxi usainduna. Soinetik kendu, ahizparekin joan bada hari eman eta eseri egingo da. Segidan eleberri bat aterako du larruzko poltsa handitik. Liburua berria izaten da beti. Irakurriz pasatuko du gelan egon beharreko tarte osoa, inorekin begiradarik ez gurutzatzeko. Ahizpari

berari ere zeregin bera jarriko dio. Harentzako eleberri bat ere aterako du larruzko poltsatik. Bera aurreko saioan irakurtzen ari zena izango da ziur aski.

Josuneren buruko loreak gustatzen zaizkio Albertoren emazteari. Senarrari laguntzera etorriko zen. Mesprezuz tratatuko du Albertok eta emazteak hitz egingo du alboan tokatzen zaionarekin. Gai kuttuna: sendabelarrak eta erremedio zaharrak. "Sorgina ala sasi-medikua, Antonia, ezjakin hutsa zara. Ausarta izaten da ignorantzia, eta zu behintzat ezin isilik egon!" Salaketa eta irainaren aurrean ez da isilik geratuko emaztea eta horrek erosoagoa egingo die egoera bertan daudenei: "Ai gizona, sumatuko bazenu jakin gabe zenbat sendabelar jan duzun otorduetan! Niri esker zaude oraindik bizirik!" Egia ala ez, Alberto isiltzeko balio izango du.

Dotorea izango zen Alberto gaztetan. Planta eta ahots seduktorea mantentzen ditu. Horren jakitun dela, mantso ebakiko ditu letrak ahoan, "sorgina ala sasi-medikua" eseak bereziki gozatuko ditu.

Alberto ea sugetzarretako aktorea al den galdetuko dio Rosauritak aitari, Oswaldori. Denari baietz esaten dio gizagaixoak. Ez du alaba norekin utzi eta, gainera, neskatila zoriontsua izaten da gelan. Ez da oraindik jabetzen inguruan zer gertatzen ari den. Dena izango da polita beretzat: batetik, gozokiak emango dizkiote aitaren egoera bertsuan daudenek eta bestetik, erizainen jostailu izango da goiz osoan.

Amaia Artolazabal Amilleta

www.otamotz.com/index.php Web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Idoia Barbarin

Idoia Barbarin urretxuarrak 32 urte ditu. Ikastolan egin zituen oinarriko ikasketak eta ondoren ile-apainketa ikasi zuen Donostian. Aita gaixo jarri zen eta gozogintzan hasi behar izan zuen berari laguntzeko. "Hasieran pena pixka bat eman zidan, ile-apaintzaile izan nahi bainuen, baina egungo lana gustuko dut". Ezkurra gozotegiko pastelak egin eta banatzen ditu. Aisialdian mendira joatea eta zaldian ibiltzea atsegin du. "Zaldian ibiltzeak lasaitu egiten nau. Araia ondoko herri batean dagoen zalditegi batera joaten naiz", aipatu du.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Ile-apaintzailea.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendira joatea eta zaldian ibiltzea.

Bizitzeko toki bat?

Urretxu

Krema, nata ala txokolatea?

Krema.

Borracho izeneko pastela ez zaio inori gustatzen. Zergatik egiten duzue?

Gure etxean ez dugu pastel hori egiten! Horregatik hain zuzen ere: ia inori ez zaiolako gustatzen. Batzuetan jendeak dozena bat pastel eskatu eta, mesedez, *borracho* izenekoa ez jartzeko esaten digu.

Zein da zuen etxeko berezitasuna?

Milorria. Ez dugu trikimailu berezirik, baina jendeari asko gustatzen zaio guk egiten duguna.

Zer nahiago du jendeak, pastel handiak ala txikiak?

Txikiak.

Zein da zure pastel gustukoena?


Txokolatezko ontzitxoak.

Ez al zara pastelez nazkatu?

Egia esan, egunero-egunero pasteekin lan egiten dugunok gazira jotzeko joera dugu. Noizean behin bakarrik jaten ditut pastelak.

Illehorriak ala beltzaranak?

Illehorriak.



Egindako azken oparia?

Itziar lankideari bere urtebetetze egunean oparitutako belarrirakoak.

Eta jasotakoa?

Etxeko sarrera berritu dut familiako guztien laguntzari esker.

Data bat?

Sanjoanak.

Mutil eta neska izen bana?

Unax eta Maddi.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

El Diario Vasco.

Gustuko telebista saioa?

Password.

Bereziki gorroto duzuna?

Txutxumutxu saioak ezin ditut jasan.

Liburu bat?

Ez naiz liburu zalea.

Pelikula bat?

Ez dago bereziki gustatzen zaidan bat.

Soinu bat?

Itsasoarena.

Usain bat?

Labandarena.

Janari bat?

Txipiroiak.

Ura ala...

Sagardoa.



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Etxebizitzén eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak

PREMANK


KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
☎ 943 72 41 00
e-mail: administracion1@premank.com



IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA